

1. Irakurri testua, idatzi ulertzen ez dituzun hitzak eta bila itzazu hiztegia.

Gero, irakurri bigarren aldi batean.

GULLIVER IPOTXEN LURRALDEAN



Bazen behin, duela urte asko, Gulliver izeneko gizon bat, beti bidaietan pentsatzen ari zena.

Egun batean, itsasontzi batean ontziratu zen Gulliver.

Itsasontzia hegoaldeko itsasoetara zihoan. Baina gau batean, ikaragarritzko ekaitza sortu zen. Itsasontziak harkaitz batzuen kontra jo zuen eta Gulliver uretara erori zen. Igeri eta igeri egiten denbora luzea eman ondoren, azkenean hondartza batera heldu zen.

Uretatik leher eginda atera zen. Neka-neka eginda zegoen eta, lurrean etzan orduko, loak hartu zuen.

Goizean, esnatu zenean, jaikitzen saiatu zen, baina ezin izan zuen. Ilea eta gorputza lurrari lotuta zituen, estu-estu, soken bidez.

Tira eta tira, ahalegin handia egin eta gero, albo batera begiratzea lortu zuen eta ehunaka, milaka, ipotxez inguratuta zegoela ikusi zuen.

Gulliver berehala konturatu zen: Liliput herrian zegoen, hatzamar bat baino txikiagoak ziren gizakien lurraldean.

*Jonathan Swift.
Gulliverren bidaiak (Moldatua)*

2. ERANTZUN GALDEREI.

- Gulliver itsasontzi baten igo zen. Nora zihoan itsasontzia?

Itsasontzia _____ zihoan.

- Osatu esaldiak:

- *Itsasontziak _____ batzuen kontra jo zuen.*

- *Gulliverrek hondartza bateraino _____ egin behar izan zuen, _____ ra erori baitzen.*

- Esan egia ala gezurra den:

- *Hondartzara iritsitakoan, Gulliverrek lo hartu zuen.*

- *Goizean, Gulliver jaiki egin zen. _____*

- Zer ikusi zuen Gulliverrek bere inguruan hondartzan?

- Zein lurraldetan zegoen Gulliver? _____